

Zer egin behar dugu gure eskolan ikasle bati istripu bat gertatzen zaionean?

ISTRIPU ARINA

(Ez da zainketa berezirik behar)

IRAKASLEA ARDURATUKO DA

ISTRIPU ARINAK

- Ebaki arinak
- Erredura arinak
- Sudurreko odoljarioa
- ...

ISTRIPU LARRIA

(Ezinbestean jo behar da medikuarengana)

Zaintzako irakaslearen ustez ikaslea osasun-zentro batera edo etxera eraman behar badugu, eskolako furgoneta erabiliko dugu edo taxi bati deituko diogu (943203071).

Zaintzako irakasleak edo zuzendaritzan zaintzan dagoenak lagunduko dio ikasleari.

Ahalik eta azkarren emango dugu abisua idazkaritzan, istripu-partea berehala bideratu dezaten.

ISTRIPU LARRIAK

- Hezur-hausturak
- Ebaki larriak
- Gorputz arrotzak, zauriak edo traumatismoak begietan
- Elektrokuzioa
- Erredura larriak
- Buruko traumatismoak
- Zorabioak edo konortea galtzea
- ...

ISTRIPU OSO LARRIA

(Artatze berezia behar da: osasun-aditu batek erabaki behar du nola jokatu)

112ra DEITU eta ANBULANTZIA ESKATUKO DUGU.
Anbulantzian beti lagunduko dio norbaitek ikasleari; baita familiari deitu eta familia ospitalera heldu arte itxaron ere.

Ahalik eta azkarren emango dugu abisua idazkaritzan, istripu-partea berehala bideratu dezaten.

ZALANTZARIK IZANEZ GERO, DEITU 112ra EDO JOAN IKASTETXEAREN GUNeko OSASUN-ZENTRORA.

Istripua izan duena ikasle ez den ikastetxeko beste edozein langile bada, idazkaritzan galdetuko dugu zein osasun-zentrotara jo behar dugun.